



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO
IRAKASLE FUNTZIONARIOEN LAN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN
AKORDIOAREN NEGOZIAZIOAN HARTUTAKO AKORDIO OINARRIAREN
SINADURA AKTA**

Lakuan Gasteizen, 2007ko maiatzaren 14an

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izenean:

- Pablo LARRAURI, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea.

Sindikatuaren izenean:

- CC.OO.: Javier NOGALES

Idazkari modura, Gotzone VILLAPUN

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta CC.OO.-ek "2007-2009 Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Hitzarmen" berri baten gai nagusiei buruzko akordio oinarria adozten dute. Akordio oinarri horrek akta honekin batera doan eranskinak jasotzen duen edukia du.

Berorren arabera, Administrazioak Hitzarmen berriaren testu artikulatua osatzeari ekingo dio, akta hau sinatzen den unetik hilabete bateko epean Mahai Sektorialean testu hori aurkezteko konpromezua hartuz.

Eta beren adostasunaren adierazgarri akta hau eta lehen adierazitako eranskina sinatzen dute esandako toki egunetan.

Administrazioaren aldetik:

CC.OO.:



AKORDIO OINARRIAREN SINADURA AKTAREN ERANSKINA

1.- Ordainsarien igoerak

.-Mahai Orokorrak adostutako igoera, % 4,24 eta 4,54 bitartean.

.-Igoera hauei seiurtekoen kapitalizazioak eta Itzarrik dakartzanak gehitu beharko zaizkio.

.-Zenbat funtzio eta kargu betetzea ordaintzeko 9 miloi euroko diru suspergarri bat onartzen da. Ondorengo taularen arabera ordainduko da:

Kargu/funtzioa	Urtekoa	Hilabetero(12)
Zuzendaria	950,00 €	79,16 €
Ikasketa burua	525,00 €	43,75 €
Idazkaria	525,00 €	43,75 €
Tutorea (Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza/Bigarren Hezkuntzako erregimen orokorreko ikasketak)	765,00 €	63,75 €
Ziklo Kordinadorea	695,00 €	57,91 €

.-Irakaslegoaren lan-karreraren negoziazioari ekingo zaio, gai horren oinarritzko araudiak ezartzen dituen printzipio eta epeen arabera.

2.- 2007-2011 epean enplegua finkatzeko plana

Bi aldeen asmoa egun dagoen bitartekotasun ratioa murriztea da. Hiru urtetan bitartekoen portzentaia gehenez aurrekontuetako plantilaren %8ra murrizteko Mahai Orokorra Akordioak markatutako bideari jarraitzeko eta -benetako klaustro egonkorrak lortuz- ez soilik langileentzat baizik eta irakaskuntzaren kalitatearentzat onuragarria izango dela usten delako.

Hori horrela, 2007-2011 epean, urtero eta irakaskuntzako maila ezberdinentzat, Lanpostu Eskeintza Publikoak egingo dira. Egundik 3000 lanpostu izatera ailegatu daitekeela aurreikusten da. Deialdi horietan “*Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación*” delakoaren 17garren aldi baterako disposizioak ezarritako prozedura berezia jarraituko da.

2007-2009 eperako aurreikusten diren kopuruak dira:

2007: 1.100 lehen hezkuntza

2008: 550 bigarren hezkuntza

2009: 400 lehen hezkuntza, 300 bigarren hezkuntza

Ondorengo urteetan deitu beharreko lanpostu kopurua Planifikazio Batzordean aztertua izango da. Horretarako une oro dauden bakanteak eta suertatutako jubilazioak kontutan hartuak izango dira.



3.- Bitarteko langilegoa finkatzeko sistema berria

Bitarteko langilegoa lanpostu hutsetan finkatzeko sistema berri bat arautuko da, ikasturte bat baino gehiagon langilego hau ikastetxetan mantenduz eta plantilak egonkortuz.

Bere ezaugarri nagusiak honako hauek izango dira:

2007-2008 ikasturtea: bitarteko langile guztiak aurre esleipen baten hartuko du parte. Modu honetan bere aukerak sistema berriaren funtzionamenduari buruzko informazio guztiarekin egingo ditu.

2008-2009 ikasturtea: sistema berria oinarri hauekin erabiltzan hasiko da:

.eskubide gehiagoko gainontzeko taldeei esleitu ondoren ikasturte hasierako esleipenera eramandako lanpostu hutsen %50aren pertsona kopurua finkatzeko eskubidea izango du. Zenbaki hori ondorengo talde bakoitzean lortuko da: Lehen Hezkuntza, Bigarremn Hezkuntza, Lanbide Heziketako Irakasle teknikoak.

.eskubidea duten pertsonen ezarketa ordezkapen izengaien zerrendak erabilitako lehentasunaren arabera egingo da, ezinbestekoa izanik aurreko ikasturtean otsailetik aurrera tarterik gabe aritzea. Honi buruz ez dira kontuan hartuko, nahiz eta zerrendetan egon, egun euskal sistema publikoan irakasle gisa lanean ari ez direnak.

.eskubidea aitortu zaien pertsonak aurreko ikasturtean aritutako ikastetxeetan finkatuak izango dira, baldin eta lanpostuaren beharrezko erizpideak betetzen badituzte. Hori horrela ez balitz, gainontzeko lanpostuak aukeratu ahal izango ditu, beste izangai guztiarekin batera, ordezkapenen araudiaren arabera.

.bi une horietan (finkapena eta aukeraketa) ikasturte hasierako esleipenaren araudiak jasotako kontuan izango da.

.dagokion Batzordean eta ondorengo ikasturtetarako, esandako portzentaia igotzea edo murriztea aztertuko da, beti sistemaren beharrak kontuan harturik eta prozeduraren erabileraren ondorioak azterturik.

4.- 55 urte baino gehiago dituen irakasleagoaren jardun lektiboaren murrizketa

2007/2008 ikasturtetik aurrera; Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ari den 59 urtetik gorako irakasleagoak bere jardun lektiboa gehienez 2 ordutan murriztu ahal izango du. Denbora hori Hezkuntza-Administrazioak finkatutakoren arabera ikastetxeetan gauzatzen diren hainbat jardueretan erabiliko da.

Aurrerantzean, Batzorde Parekideak gainontzeko mailei figura hau zabaltzea aztertuko du.



5.- Irakaskutzaren behar berriei erantzuna emateko neurriak

.-Haur Hezkuntza

2007/2008 ikasturtean 2 urteko geletan 1,5 ratioa erabiliko da eta suertatzen diren lanpostuak LPZan sartuko dira. Gainontzeko geletan eta beren taimanaren arabera, Irakasleagoren Akordioan ezarritako ratioa erabiliko da.

.-Ikaslego atzerritarra

Hizkuntz indarketarako 250 irakasleen kupoa indarrean jarriko da 2007/2008 ikasturteko hasierarako. Azken hiru urtetan kontsolidatutakoak LPZ-ren parte izango dira.

Gainera ikastetxeek, ikasle atzerritaren kopurua gutxienez % 30 bada lehen hezkuntzan eta %20 bigarren hezkuntzan, interbentzio egitasmoa aurkeztu ondoren, ordu kreditu gehigarriak izango dituzte. Portzentai horiek betetzen ez dituzten ikastetxeetan irakaslego atzerritarrari eman beharreko laguntza "PIEE" delako bidez egingo da bigarren hezkuntzan eta beste programen bidez lehen hezkuntzan.

.-Elkarbizitza

Elkarbizitza plana egiteko irakasle erdiko kreditu gehigarria ezarriko da ikastetxeko. 2007-2008 ikasturtean 115 ikastetxe izango dira eta gehienetara helduko da 2009-2010 ikasturtean.

Gainera beste neurri osagarriak ere bidean jarriko dira.

.-Informazio eta Komunikazio Teknologiak

Hezkuntza Sailak 2010/2011 ikasturterako "IKT" Ikastetxe Izaera ikastetxe guztiei zabaltzea planteatzen du.

Horretarako ikastetxea bakoitzan egoeraren diagnosis egingo du eta horren arabera "IKT"-en dinamizatorako irakasle erdiko kreditu gehigarria ezarriko da ikastetxeko. 2007-2008 ikasturtean 115 ikastetxe izango dira eta gehienetara helduko da 2009-2010 ikasturtean

Gainera beste neurriak ere hartuko dira: besteak beste IKT delako erabilera erraztuko duen eukaraz eginiko edukin digitalen bultzada.

.-Orientazioa

HHiko ikastetxeetan orientatzaileak jartzen joango da, ondorengo taularen arabera:

	2007/2008	2008/2009
Araba	1	1
Bizkaia	4	4
Gipuzkoa	3	2

2007-2008 ikasturtean, ez-aldeko inguruetan dauden eta lanbide-hastapenerako ikaslegoa duten Lanbide Heziketako 4 ikastetxetan orientatzailea jarriko da. Aurrerantzean Lanbide Heziketako gainontzeko ikastetxetan jartzea aztertuko da.



.-Hizkuntz Normalkuntza

Egindakoan zakontzen joatea eta hizkuntz ereduaren sistemak ezartzen dituen helburuak lotzeko eginbeharrekoak egiten jarraituko da. Dagokion Batzordean beharrezko baliabideak zeintzuk diren negoziatuko da.

Euskalduntze-formazio bideari buruz, egonkor izaera izan zuten langileek aurrerantzean karrerazko funtzionarioek duten trataera berbera izango dute.

R-ikastaroetan bitarteko langilegoari zuzendutako 50 plazen kupo bat ezartzen da.

.-HHI eta HEO-rako eskeintza

Eskaeraren arabera, bai HHI-n bai HEO-n irakasle eskeintza gehitzea airreikusten da, ondorengo taularen arabera:

	2007/2008	2008/2009
HHI	15	15
HEO	6	4

6.- Irakasleen ordezkapenak

Ikastetxeetako bajak betetzeko egungo egoeratik abiatuz, ordezkapenen baldintzak hobetuko dira, Lehen Hezkuntzan laugarren egunetik eta norbere zereginetarako kasuetan lehen egunetik aurrera ordezkatzera pasatuz.

7.- Bitarteko langilegoaren lan-baldintzak

Dagokion Batzordean bitarteko langilegoaren baldintzak eta berorien eta karrerako funtzionarien artean dauden ezberditasunak aztertzeari ekingo zaio.

8.- Azken Irakaslegoaren Akordioan jaso gabeko eta hura sinatu ondoren onartutako zenbat onura

Lanpostu Zerrenda

- 1.-Lanpostu Zerrenda 1.060 lanpostutan gehitzea. Nahiz eta horiek funtzionamendu plantilan egon, orain arte ezin izan ziren aurrekontu-plantilan sartu.
- 2.-Lanbide heziketako arautu gabeko irakaskutzako orduak Lanpostu Zerrendan azaltzea.
- 3.- 2 urteko gela lanpostuak Lanpostu Zerrendan azaltzea, eta leku-aldatze lehiaketan eskeintzea.



Jarduna eta Lan-baldintzak

- 4.-Prebentzio arduradunari 2 orduko liberazioa eman.
- 5.-Lanbide Heziketako langilegoaren inkompatibilitate araudia osatu.
- 6.-Eskolaz kanpoko ekintzen langilegoari DBHko osagarria aitortu.

Bitartekoak eta Ordezkoak

- 7.- Esleipenak Lurralde bakar batean egin.
- 8.-Esleipena zerrenda batearatuaz egin, habilitazioak edo hizkuntz perfilak behartu gabe.
- 9.-Eskeiniko diren lanpostuak gutxienez ohizko jarduraren heren batekoak izatea. [EBAZPENA 2004ko maiatzaren 26koa (izangaien zerrenda)]
- 10.-Eskubide gehiago izan eta edozein akats dela medio lanpostu bat gabe gelditzen diren langileei ordainsariak eta puntuak aitortzea.
- 11.-Bitartekoiei aldi baterako lanpostu uztea hartzeko eskubidea aitortu eta Akordioaren baldintzak hobetu [ZIRKULARRA 1/2006, de urtarrilaren 26koa].
- 12.- Bitartekoen artean karrerako funtziorien arteko Zerbitzu Berezien moduko egoera administratiboa aitortu.